


Herri Aldizkaria

Otoz



BADATÓZ
AURTENGO SANTA
ISABEL JAIÁK

JUBILATU ONDOREN ERE
GIMNASIA EGITEKO
SASOIAN!

URRETXUZUMARRAGAKO

I. HERRI OLINPIADAK

UZTAILAREN 8TIK-19RA

ARRATSALDEKO 7ETATIK, 10ETARA

JOKOAK

FUTBITOA

SASKIBALOIA

PELOTA: PALA, TXOKOAN (BINAKA)

SORPRESAREN BAT

IZEN EMATEA, UZTAILAREN 4A ARTE

FLORIDA, LAKET, GAZTELEKU ETA ZINTZO-MINTZON 72 57 75
TELEFONO ZENBAKIAN.

BILERA

UZTAILAREN 5^{EAN} KULTUR ETXEAN ILUNTZEKO 8^{ETAN}

ANTOLATZAILEAK

EUSKAL JAIA TALDEA,
GAZTELEKU ETA ZINTZO
MINTZO ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

URRETXU ETA ZUMARRAGAKO UDALAK
GOIERRI K. E.

Santa Isabelak

*Santa Isabelak iristen dira
uztailarekin batera
hori dela eta ibiltzen gara
denok gora eta be(h)era
jolas ugari egiten dugu
irteten gara kalera
aste batean dugun aukeraz
etengabe gozatzen*

*Giza katea, ezpatadantza
beste hainbeste ekintza
tristura, penak uxatu eta
alaitzen zaigu bizitza
edozein gauza izan liteke
ondo pasatzeko giltza
herritar denok ondo pasatu
a(h)al bada euskaraz mintza.*

DOJNUA: Txoriak eta txoriburuak



ANTTON FERNANDEZ LASA

1996ko Gipuzkoko eta Urretxu-
Zumarragako eskolarteko bertso-
paper lehiaketako txapelduna
O.H.O.ko 8.mailan.

ZORIONAK!!!

Internet edo etorkizunean datorkiguna (jada dagoena)

<http://www.yahoo.com>,
jibalroi@si.ehu.es ... horrelako
helbideak topa ditugu aspaldi honetan
Egunkarian, irratietan, telebistan ...
Behin baino gehiagotan Internet
aditza eman zaigun hitza dugu. Nork
ez du entzun edo irakurri Internet han
hemenka erabiltzen ari direla, Internet-
en Rolling Stones taldearen kontzertu
bat eman dutela edo sare honen bitartez
Suediatik :) urliak sandiari idatzi diola
ondo dagoela esanez ... baina Internet,
zer da Internet?

Gaur egun, ordenadoreak ez dira
aurrezki-kutxako gestioa egiteko
bakarrik erabiltzen, ezta soil-soilik
irakasleari eman behar diogun
filosofiako lan hori txukun-txukun
idazteko ere, ezta bakarrik programa
baten bidez errenta aitortzea egiteko
ere. Ordenadoreak gizarte arlo guztietan
zabaldu diren baliapideak dira:
medikuntza, kirolean, testuen edizioan
(OTAMOTZ horrexegatik iristen zaizu
etxera), mekanika ... eta
komunikazioan. Ordenadoreak ere,
komunikatzeko erabiltzen dira. Eta
komunikatzeko erabiltzen da Internet.

Internet mundu osoan barrena
zabalik dagoen ordenadore sare
erraldoia dugu. 60. hamarkadatik
sortutako sarea, egun 300 bat milioi
erabiltzailez osaturik dago eta kultura
eta jakintza arlo guztietako informazioa
biltzen du. Informazioa da beraz, sare
honek gordetzen duen altxor preziatua,
bertatik eskura daitekeena. Pixkanaka
III. Uhinean barneratzen ari gara,
informazioaren uhinean, informazioaren
iraultzan, gizartearen goitik behera aldaraziko duena. Izan



ere, dagoeneko, mundua Urretxu eta
Zumarraga baino gune txikiago
bihurtu da.

Horrenbeste aldiz aipatutako
etorkizuna bertan dugu. Gizarte oso
azkar aldatzen ari da, azkarregi agian,
eta hainbeste aldiz errepikatu den tren
hori galtzeko zorian gaude. Trena
galdu ez dakit, baina gure eginahalak
egin beharko ditugu gure burua
eguneratzen. Orain dela aste pare
bat Bilbon ospatu den Informazio
Teknologiaren X. Mundu
Kongresuan, analfabeto informatikoa-
ren figuraz ere mintzatu ziren,
ordenadoreak erabiltzeko gai ez den
pertsonez alegia. Izan ere, idazten
jakitea bezain garrantzitsua izango
baita ordenadorea erabiltzen jakitea.
Makinaz idazten ikasi genuen,
telebistaren mandoa jo eta ke
erabiltzen dugu, kutxazain
automatikora erreparurik gabe joaten
garen bezalaxe. Ordenadorea
erabiltzen jakin beharko dugu,
horretarako informatikaz ez da jakin
behar eta. Orain gure hurrengo urratsa
ordenadoreekin batera doa. Hor dago
erronka, hor dago etorkizuna.

Jonmikel Insausti
informatikaria



Ura guztion eskura!

S. Esnaola 34, etxeazpia
20700 ZUMARRAGA

© 72 04 23

**Aldizkari honek Urretxu
eta Zumarragako udalen
laguntza jaso du**



**ZUMARRAGAKO
UDALA**



**URRETXUKO
UDALA**



■ Festa garaian gaude

Eguraldi onarekin batera festak iritsi zaizkigu. San Antonio egunez hasi ziren **San Anton** jaietan giro ona izan bagenuen ere, ospatu berri ditugun **San Juanetan** ere, umore onean ibili gara herritarrok. Santa Barbaran musika kontzertua, Ederrenan pilota partiduak eta LURRA dantza taldeak antolatutako dantzari txiki egunaren ondoren, jende asko inguratu zen San Juan bezperan sorginak sutan erretzen ikustera. Santa Barbarako erromeriara inguratutako jendetza ere ez zen makala izan eta dantzari ugari aritu zen txistulari, dultzainari eta trikitilarien aginduetara dantzan.

Asteburu honetan **Santa Isabel** jaiak eta datorrenean **geltokietakoak** ospatzeko prestatu beharrean gaude orain.

ZUMLORE
LORATEGIA



Begoña Sagastizabal

© 72 51 90 - 72 06 76

Iparagirre hiribidea, 5 ZUMARRAGA

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo
besterik behar baduzu zatoz hona




ARTVRO

Ipeñarrieta, 4 © 72 14 20 URRETXU



fundazioa
fundación



KIROL DENDA

Gernikako Arbola plaza 5, behea A

URRETXU

Tel: 72 59 71



Gaspar de Arabaolaza urretxuarrari omenaldia Zamoran

Goiargi abesbatzak Gaspar de Arabaolaza urretxuarrari, Zamoran egin zitzaion omenaldian abestu zuen ekainaren 15ean. "Coro Sacro Zamora" k egin zion gonbitea herriko abesbatzari. Gaspar de Arabaolaza 1885.urtean Urretxun jaio eta 1959. urtean hil zen Zamoran. 1908tik, Zamorako katedraleko kapilako irakasle postua lortu zuenetik, bizi izan zen Zamoran. Apaiza eta musika konposatzailea izan zen eta musikaren alde horrenbeste urtetan egindako lanagatik Alfonso X. Jakintsuaren saria jaso zuen Zamoran.

Udan ere euskara ikasteko aukera

Uda euskara ikasteko momentu ezin hobe dela eta **Udal Euskaltegiak** eta **AEK** k bere udako programaren berri eman zuten. Era berean **Zumarraga** eta **Urretxuko udalek** euskara ikasteko beken inguruko xehetasunak azaldu zituzten.

Udal Euskaltegiari dagokionez uda ikastaroei ekingo die inauguratu berri den lokalean ekainaren 27an hasi eta uztailaren 24 arte. Maila guztiak izango dira, **Euskalduntze**, **Alfabetatze** eta **EGA**. Bestalde Beizama eta Lizartzan **barnetegiak** izango dira egun osoan euskaraz hitz egiteko.

AEK ri dagokionez, barnetegiak Iparraldean eta

Hegoaldean egongo dira aukera zabala eskainiko delarik orotara. **Bisastin** bertan **euskalduntze maila guztiak**, **EGA** ikastaroa eta **16 urtetik beherakoentzako** ikastaro berriak izango dira uztailaren 3tik 30a bitartean. Bestalde **AEKk** Xiberera eta Bizkaiera ikastaroak dauzka bere udako aukeren artean eta hauetaz gain goi urratsetako ikasleei zuzendutako **barnetegi** berezia Azken Bultzada izeneko programa.

Hau guztirako Zumarraga eta Urretxuko Udalek bi herriotako euskaltegietatik kanpo 1996. urtean euskaraikasten aritutakoei **dirulaguntzak** eskainiko dizkie.



TXINDOKI
TABERNA

Txopitoetan berezitasuna

Secundino Esnaola, 18 ZUMARRAGA



ALGAR

Estetika zentroa

Depilazioa, masaiak, azal garbiketa

Ipeñarrieta 1-1. ezk.

URRETXU

© 72 02 46

EDURNE

Punta puntako moda

Aukerarik hoberena

gizonezko eta gazteentzat

Piedad, 18 © 72 14 17 ZUMARRAGA



Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11-etxeazpia
20700 URRETXU

© 72 25 99

ELIZ - KALE

L AUTOESKOLA

Bidezar, 11

20700 ZUMARRAGA © 72 04 52

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurria

& eta Faxe: 72 02 55

Erratzu, z/g 20700 URRETXU

Txistulariak koadrila eguna berpiztu nahian

Aurten, bigarren urtea jarraian, Zumarragako txistulariak izango dira koadrila egunaren antolatzaileak. Duela 4-5 urte bazkari honen inguruko parte hartzaileen kopuru eta

giroaren beherakada somatu zen. Txistulariak, egoera kezagarri honetaz ohartu eta gazte guztientzako koadrila eguna antolatzeari ekin zioten udalaren laguntzarekin.

Lan handia suposatzen al du koadrilen eguna antolatzek?

Guk uste baina lan handiagoa. Dena den, lana guztion artean banatu dugu eta gustora egiten dugunez ez da horrenbestekoa.

Zein ekintza antolatu duzue egun berezi honetarako?

Lehenengo koadrilak elkartuko gara Zelai Arizti zugaztian. Koadrila bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du. Bakoitzak bere mahaia jarri ondoren Urteaga anaiek alaituriko poteoa egingo dugu. Hasiera batean goitibehera lehiaketa antolatzeko asmoa bage-nuen ere, bertan behera geratu da. Bazkal ondoren hainbat ekintza prestatu ditugu: Euskal karaokea, bertsolariak, txistulariak, trikitilariak eta joku "kañeroak".

Ze ezberdintasun dago aurtengo koadrila egunaren eta iazkoaren artean?

Iaz, azkeneko momentuan antolatu genuen dena. Ekintza gutxi prestatu genuen. Aurten, berriz, denbora gehiago izan dugunez, egun mundiala irtetea da gure helburua.

Zer nolako erantzuna espero duzue jendearen aldetik?



Guztion artean guztiontzat jai giro euskaldun eta martxosoa lortu behar dugu

Kontutan hartu behar da duela hiru-lau urte jende gutxi eta giro kaxkarra egon zela. Iaz, ordea, partehartze eta giro hobea izan zen eta aurten, hobea espero dugu.

Zer oztopo eta laguntza izan duzue antolaketa lanetan?

Oztopoen artean jendearen parte hartze eza. Oso erraza da jaietan girorik sortzen ez dela esatea. Gure ustez, kritika hauek alde batera utzi behar dira eta guztion artean guztiontzat jaigiro euskaldun eta martxosoa lortu behar da. Hala ere, iazko urtean baina jende gehiago

inguratu da bileretara. Arlo honetan kultur taldeak azpimarratu nahi genituzke.

Laguntzei dagokienez, udalaren dirulaguntza eskertzekoa da, aurreko urtean baino diru gehiago eman baitu.

Zer behar du jendeak animatzeko?

Antolakuntza ona eta festa giroa sortzen duten ekintzak. Jendeak nahi duena, dena eskura ematea da. Bestalde, animazio puntu hori lortzeko, ekintzek, euren gustuekin bat etorri behar dute.

Zer gomendatuko zeniekete bazkarira joango diren koadrilei?

Aurreko gauean parranda gutxi egiteko eta ahotsa zaindu dezate-la, izango da eta zer kantatu. Jokuetarako, ondo prestatu daitezela sorpresatxoren bat edo beste edukiko dute eta.

Nahiz eta egun horretan lan egitea tokatu zaizuen, parrandarako gogoia izango da ezta?

Noski baietz!! Zumarragarrak garenez eta harro gaudenez, ospatu beharra dugu. Beti dugu parranda egiteko gogoia eta nola ez dugu egingo gure herriko jaiak badira?

Badator danbor hotsa

Urteak dira Anparo danborradaren munduan sartu zela, gustokoa duela onartu arren, buruhausteak ere eman dizkio. Gai honetan aditua denez berarengana hurbildu gara danborradaren inguruko xehetasunak jakiteko asmoz.

Aurtengo festetan zein eratara parte hartuko duzu?

Aurreko urteetan bezalaxe, Umearen Eguna eta haundi eta txikien danborradaren antolaketan parte hartuko dut.

"La Salle-ko ikasle ohiak" taldeko kide bezala antolaketaz arduratzen gara; nahiz eta hasiera batean kide asko antolaketaz arduratu, gaur egungo egoera bestelakoa da.

Noiz hasi zinen parte hartzen?

Uff!! Jadanik ez dut gogoratzen baina hamalau-hamabost bat urte izango dira.

Zer da gehien erakartzen zaituena urtez urte jo eta ke aritzeko?

Urtero azken urtea izango dela pentsatzen dut baina momentua iristean hor izaten naiz. Honen arrazoia umeak asko gustatzen zaizkidala da batik bat eta beraiek duten ilusioa lan honetan ihardutera bultzatzen naute.

Zuk zeuk parte hartu izan al duzu noizbait danborradan?

Ez, ez dut inoiz parte hartu, gainera ni urretxuarra naiz.

Zertan datza Umearen Eguna?

Umearen Eguna eguerdiko hamabietan hasten da Udaletxean egiten den botere aldatetarekin. Hau da, aurrez aukeraturiko alkate edo alkatesa batek, urtero ikastetxe desberdinekoa dena, agindu makila jasotzen du benetako alkatearen eskutik.



Urtero azken urtea izango dela pentsatzen dut baina momentua iristean hor izaten naiz

Jarraian, joku desberdinak antolatzen dira eta bazkal ostean lauretan elkartzen dira danborradari hasiera emateko. Danborradan, ikastetxearen arabera taldeka iriten dira eta oraindik danborra jotzeko adina ez dutenek (9 urte baino gutxiagokoak) desfilea egiten dute.

Eta, Haundien Danborrada?

Egituraketa elkarteen arabera egiten da, parte hartu nahi duenak hauetariko batean izena eman eta kitto. Beno, aipatu behar da bertan parte hartzeko gutxienez 17 urte izan behar direla.

Danborrada antolatzeko dirulaguntzarik jasotzen al duzue?

Udala arduratzen da danborradaren aurrekontuaz; jantzien eta, danborren konponketa... dena gure aurrekontuan jasotzen dugu eta udalak ahal duen neurrian gastu hauei aurre egiten die.

Entsaioei dagokienez, zailtasunak izaten al dituzue umeei irakasteko?

Ez, urtero abesti berak dira eta aise

ikasten dute. Okerrena, bai handi eta baita txikiekin ere, abesti berriak ikastea izaten da, jendea ez da oso konstantea entsaioetara etortzeko garaian eta honek abesti berriak ikasteko aukera ekiditen du.

Azken urteko danborradak eta beste hainbat ekintza ikusirik, jendearen parte hartzea eskasa dela esan daiteke. Zein mezu luzatuko zenioke jendeari?

Batez ere, festetan parte hartzera anima daitezela, gure gustuko festak izateko ezinbestekoa da norberaren parte hartzea. Bestalde, oso garrantzitsua ikusten dut umeak motibatzea bai etxean eta baita ikastetxean ere.

Beno, eta horrenbeste lan egin ondoren, primerako danborrada irten dadila opa dizuegu eta, nola ez, festa ezin hobeak igaro ditzazuela. **AUPA SANTAIXABELAK!!!!**



Giza katea, 1995



Giza katea, 1994

Giza katea

Guztiok batera euskararen aldeko giza katera

Giza katea Zintzo-Mintzok euskararen alde antolatzen duen ekitaldia da, irekia, hau da, edozein adinetako pertsonak parte har dezakeena.

Aurten giza katea, **ekainaren 29an**, koadrilen egunean, egingo dugu **arratsaldeko zortzi eta erdietan**. Guztiok **Euskadi plazan** bilduko gara trikitilariekin, dantzariekin, txalapartariekin, erraldoiekin, hankapaloekin, dultzainariekin, txistulariekin eta kalea girotuko duten beste hainbatekin eta **eskua bata besteari luzatuz, bi herriak katea batez, lotzen saiatuko gara.**

Ekitaldi honen bidez, euskara lokarri dugula kateak bi herriak ingura eta lot ditzan nahi dugu. Katea horren bitartez, euskara irudikatu nahi genuke, lotzen gaituen zerbait bezala. **Katea hori bakoitzaren barruan lot eta zabal dadila lortzea da helburua.**

Beraz, horra bi erronka:

- Euskaragatik bi herriak ingura eta lot ditzakegula erakustarazteanahi dugu. **Egun bateko asmoa genuke hau.**

- Urteak dituen 365 egunetan buru belarri euskararen alde lanean ari gaitezkeela apustu egin. **Denbora luzerako asmoa genuke.**

Bietan parte hartzeko gonbitea luzatzen dizugu.

EUSKARA, abestia

Aurten bi herriei bira eman ondoren, Zumarragako Euskadi plazara zuzenduko gara eta han guztiok bilduz estraineko aldiz **“Euskara” kantu berria** kantatuko dugu aho batez. **Abestia herritarrek osatu dute elkarlanean** eta helburu bakarra izan dute gogoan: **Euskara.**

Beraz, kantu eta kontu lot gaitezen elkarrekin giza katean.
Animo, han itxarongo zaitugu.

Jaietan herritarrek protagonista nagusiak


Inixio Larreina Danborrajolea

25 urte daramatza danborradan jotzen, urtero konpainia berean jo du eta luzaroan jarraitzeko asmotan dago. Danborra jotzen ondo badaki ere, entsaioetara fin joaten jarraitzen du. Lehen orain baino giro hobea eta seriotasun handiagoa izaten zela uste badu ere, gustora jarraitzen du lan horretan.



Jon Atxurra Antioko arduraduna

Antiguako ermitako arduraduna da. Santa Isabel egunean, dantzariak trabarik egin ez diezaien argazkilariak eta kazetariak zaintzeaz arduratzen da eta ermita ere erakusten die inguratutakoei. Santa Isabel egunean lan egin behar duen arren gustora aritzen da, oso egun berezia baita beretzat.



Esteban Barrena Txistularia

26 urte daramatzat Antion txistua jotzen. Lau txistularik jotzeko kontratua egin genuen alkatearekin. Orain txandaka jotzen dugu, txistulari berriei aukera emateko. Antion jotzea gauza berezia eta hunkigarria da. Jose San Pedro atabalaria hil eta Paskualek tanborra jotzea proposatu zidaneko eguna gogoratzen dut. Hasi berria nintzen eta beldurra banuen ere, ondo irten zen.



Biera koadrila parrandazaleak

Lau egunetan topera ibiltzen gara. Gauean irten eta konturatu orduko egun argiz iristen gara etxera. Gure ustez egunik onena Santa Isabelekoa da. Jaitsieran oso giro ona egoten da eta han ibiltzen gara gu saltoka eta kantuan. Gora Santa ixabelak!



Lidia Irizar eta Amaia Moro barrakazaleak

Festetan barraketan ibiltzea gustatzen zaigu gehien. Egunik politena, haurren eguna izaten da, haurren danborrada aski gustatzen zaigu. Dantzaldietan dantza ere egiten dugu, oso gustura ibiltzen gara. Santa Isabelak iristeko irrikitan gaude.



Dorotea Aierbe jubiltua

94 urte beteko ditu udan. Azken 5 urtetan, jubilatuen bazkarira joaten den emakume edadetuenari eskaintzen zaion saria jaso du, benetan eskertzen duena. Jubilatuz gero urtero joan da bazkarira, oso egun polita izaten da, ondo bazkaldu eta dantzariak ikusten baititu. Aurten ere, joateko asmotan dago Dorotea.



Zumarragako ezpatadantza

Ezpatadantza dantzatzearen ohitura noiztik datorren ez jakin arren, udaletxeko artxibategian dauden gaiari buruzko lehen datuak 1628-1629 urtekoak dira, nahiz eta lehenagoko dantza izan. 1970. hamarkadan Irrintzi dantza taldeak ezpatadantza dantzatzeiko ardura hartu zuen arte, herritarrek egiten zuten dantza uztailaren 2an eta abuztuaren 15ean. Irrintzi dantza taldeak ardura beregain hartzeak, ezpatadantzaren jarraikortasuna errazten du. Ezpatadantzak oso une txarrak izan ditu bere historian zehar, 50-60. hamarkadan dantzariak topatzea zaila zenean, Julian Zabaletak eta Jose Odriozolak, Txatok, ikaragarritzko lana egin zuten, dantza mantendu eta indartzeko.



Kapitain ohiak



Imanol Apaolaza



Miguel Urteaga



Lazaro Ormazabal



Pello Agirrezabal

Urte dexentetan izan nintzen kapitaina. Soldaduskara joan aurretik dantza egiten nuen eta handik etorri ondoren ere jarraitu nuen. Emozio handia sentitzen nuen dantza egiterakoan. Garai hartan kapitainak eta bi laguntzaileak 15na ogerleko eta gainontzeko dantzariak 6 ogerleko jasotzen genituen dantza egitearen truke.


16 urte jarraian ibili naiz dantzan. 1981. urtean Jose Odriozolari omenaldia egin zitzaionean ere egin nuen dantza. Beraz, guztira 17 urtetan aritu naiz. Jende aurrean ibiltzen ohitua nengoez ez nintzen oso urduri egoten Santa Isabel egunean. Oraindik ere urtero joaten naiz ezpadantza ikustera Santa Isabel eta Andra Mari egunean eta emozioa eta batez ere enbidia sentitzen dut.

17 urte ibili naiz ezpatadantzan, bai kapitain bezala eta baita soka ere. Festetan, kapitainak ez zuen juergarik egiten asko zaintzen zen, beste dantzariak juerga gehiago egin zezaketen. Zaila da kapitainak Santa Isabel egunean sentitzen duena adieraztea. Hunkigarria da, poz handia sentitzen da. Oraindik ere ilusioa egiten dit ezpatadantza ikusteak, baina ezberdina da sentitzen dena.

Kapitain bezala bederatzi urtez ibili naiz Hilabete aurretik dantza prestatzen hasten ginen eta dantzak fisikoki asko eskatzen duenez, prestakuntza berezia egiten genuen korrika egitera joanez. Baselizan belauniko jartzean sentitzen dena oso berezia da, beste inon ez dut horrelakorik sentitu. Orain besteak ikusterakoan, dantza egiteko gogo sartzen zait baina gazteei utzi behar zaie emozio horiek sentitzen.

Ziriako, plazarik plaza herri kirolen azalpenak emanez

Herri kirolen jarraitzaile sutsua da. Hauek ikusten disfrutatzeaz gain, erretransmititu ere egiten ditu. 17 urte daramatza mundu honetan eta 68 urte bete dituen arren, bere afizioarekin jarraitzeko asmoa du oraindik ere. 14 urtetan etorri da Zumarragara bertako herri kirolen saioa animatu eta bertan gertatutakoaren berri ematera eta datorren hilaren 1ean ere, bertan izango da Ziriako Ortiz de Zarate eibartarra.



Zenbat urte daramatza Zumarragara herri kirolak erretransmititzera etortzen?

14 urtetan etorri naiz Zumarragara Santa Isabel jaietara, bertako idi proba eta herri kirolak erretransmititzera. Hala ere, aurretik ezagutzen nuen herria, Santa Lutzi ferian izanda nengoelako eta sarritan, Urretxura ere etorria nintzen. Pilota partiduren bat ikustera. Oso gustora etorri izan naiz beti Zumarragara, estimatzen dudana herria da.

Herri kirolen munduan aski ezaguna zara, nola hasi zinen lan honetan?

Frankismo garaian Arrate Irratia itxita egon ondoren, Bernardok, irratiko zuzendariak, duela 17 urte irratia berriro zabaldu zuenean, laguntzeko eskatu zidan. Denbora libre asko ez nuen arren, lagunduko niola agindu nion. Debako idi probak izan ziren irratian bidez erretransmititu nituen lehenengoak.

Harrezkero zenbat herriko plazatan izan zara?

Harrezkero Euskal Herriko probatoki gehienak ezagutu ditut. Euskal Herritik kanpo ere egona naiz herri kirolak zirela eta. Tenerifen ere izan nintzen hemengo kirolariekin erakusketak eskaintzen. Hala ere, zerbait aipatzekotan toki guztietan oso jende ona aurkitu dudala esango nuke. Jende asko ezagutu izan dut eta txarrak uste baino gutxiago izan dira.

Zein da gustukoen duzun kirola?

Herri kiroletan idi probak ditut gustukoen, aizkora eta harri jasotzea ere gustatzen zaizkit.

Gainontzean, pilota gustatzen zait gehien. Oso pilotazalea naiz, Eibar, Bergara, Zarautz, Gasteiz eta Logroñoko pilotalekuetara joateko ohitura izan dut. Pilotaren ondoren txirrindularitza dut gogoko.

Herri kirolen mundua asko aldatu al da urte hauetan?

Bai, ikaragarri aldatu da. Lehengo kirolariak onak ziren baina oraingoek prestakuntza hobea egiten dute. Orain lehen ez bezala, gimnasioan aritzen

dira, masaiak hartzen dituzte eta elikadura ere asko zaintzen dute. Ziantza eta Ostolazaren markak izan ezik gainontzeko marka guztiak hautsi dituzte oraingo kirolariekin. Prestakuntzak asko lagundu die hortan.

Zein da egun herri kirolen egoera?

Momentu onean dagoela esango nuke. Aizkolarien eta harrijasotzaileen jaialdiak herri gehientsuenetako festetan izaten dira. Gainera, trontzan, aizkora, harria jasotzen eta txinga eramaten sekulako ikuskizuna eskaintzen duten taldeak ere ugaltzen ari dira. Ikusleentzat erakargarria izaten da hau.

Zein da Zumarragako egoera herri kirolei dagokionez?

Idi probetan Urretxu eta Zumarraga oso ondo ikusten ditut. Zaila da herri batean etxe desberdinetako lau idi bikote aritzea idi probetan. Esango nuke hau Euskal Herri guztian hementxe bakarrik gertatzen dela. Badira 20 idi pare baino gehiago dituzten herriak, baina ikuilu batekoak dira, etxe batekoak. Hemen lau etxetakoak dira, txalogarria da hau.

Urretxu eta Zumarraga idi probetan oso ondo ikusten ditut.

Gustuko al duzu eguzkitan egotea, zein neurri hartzen dituzu?



Mila Mendizabal

Aldiko gutxi hartzen dut, denbora luzean eguzkitan aspertu egiten naiz, kolore piskat izateko egoten naiz eguzkitan, baina tamainan hartzen dut. Crema ematen dut beti.



Nerea Gago

Batzuetan egoten naiz. Ez dut beti kremarik ematen. Berehala gorritzen naiz eta azala joaten zait, beraz denbora gutxi egoten naiz eguzkitan.



Pilar Zabalo

Ez dut eguzkirik hartzen. Ibiltzea komeni zaidanez, pasiatzen dudana bitartean ematen digu eguzkiak. Baina ez naiz propio eguzkitan egoten.



Mirian Redin

Eguzkitan ez naiz gehiegi egoten. Piskanaka hartzen dut eta beti ematen dut crema, protekzio maila handiko crema ematen dut, erre ez nadin.



Ramon Azurmendi

Dakigunez ekainaren 16an eta arrakasta handiz, Amurrión, Araba Euskaraz 96 ospatu zen. Aurtengo Araba Euskararen antolaketa atzean 34 urteko zumarragar hau, egun Amurrioko Aresketa ikastolako zuzendaria, aritu da jo eta ke lanean.

Berak esan digunez egun horretan eta egunean zehar, 60 mila pertsona inguru hurbildu zen Amurrióna. Aurretik jarritako helburua, kalitatezko antolaketa eskaintzea hain zuzen ere, lortu zuten. Dena ondo aurrikusita eta ondo lotuta zuten, egun horretan egin zuen bero handia izan ezik. Diru aldetik 30-32 milioiko sarrera izan badute ere, horri egin beharreko kenketak egindakoan lortutakoaren berri emango digute.

Ramon bera 1986ko irailean hasi bazen ere Amurrión lanean, hemengo ikastolak 1977an eta helduen euskalduntzearen inguruan murgildutako zenbait pertsonen bultzadaren bidez, ireki zituen ateak herriko mendi elkartearen inprobisatutako ikasgelan. Hasieran 24 ikasle ziren, egun 429 ikasle ari dira Aresketan. Ikastola hasi zenean B ereduakoa zen, 1984. urtean, berriz, D ereduaren aldeko apustu garbia egin zuten, horrek gainontzeko ikastetxe guztiak euskal ereduak eskaintzera bultzatu dituelarik.

86ko Araba Euskaraz Amurrión ospatzea sekulako eztanda izan bazen bertako euskalgintzan, 96koak ikastolak esku artean duen 40 milioiko eraikuntzari aurre egiteko, barrakoietan dauden eskolaurreko 129 haurrentzat toki aproposa egiteko eta DBHrako ikastola egokitzen lagunduko du besteak beste.

Ondo pasa Santa Isabelak! (Aurten behintzat) Ederki merezita daukazu eta.

Darmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

ZAPATAK

Otik 40 zenbakiraino

Eliz Kale, 7 ☎ 72 54 39 20700 ZUMARRAGA

Lantza

- estetika
- dietetika

Bidezar, 7 Tel.: 72 36 52 ZUMARRAGA

Jubilatu ondoren ere gimnasia egiteko sasoian



Miguel Cristobal hirugarren adinekoentzako gimnasia irakaslea da Urretxuko Aldiri polikiroldegian. 60 urtetik hasi eta 80 urtetik gorako 20 laguneko bi talde ditu bere aginduetara. Ikasleekin eta klasean izaten den giro onarekin oso gustora dago. ikasle onak eta esker onekoak dituela esan digu behi eta berriz.

Noiz sortu zen hirugarren adinekoentzako gimnasia taldea?

Duela 10 edo 12 urte inguru sortutakoa da. Gipuzkoako foru aldundia izan zen bultzatzailea, orduan eta egun, Urretxuko udalak finantziatzen duen ekintza da.

Zenbat lagun biltzen zarete bertan?

2 talde daude eta bakoitzean 20 lagun inguru ari da. Astean hiru egunetan, ordu betez aritzen da talde bakoitza. Guztiak gustora etortzen dira.

Ba al dago taldeko partaide izateko adin mugarik?

60 urte gorakoak bakarrik onartzen dira eta hemendik aurrera ez dago adin mugarik, 80 urtetik gorako taldekideak ere badabiltz.

Medikua izaten da muga jartzen duena.

Urtero ikasturte hasieran mediku errekonozimendua egin behar izaten da. Errekonozimendua gaintitzen duten guztiak onartzen dira

Zein eratako ariketak egiten dituzue?

Taldekideak 60 urtetik gorakoak direla kontutan hartuta ariketa suabeak egiten ditugu, ariketa mota desberdinak tartekatzen ditugu, koordinazioa asko lantzen dugu. TAICHI hirugarren adinakoentzat oso aproposa den teknika txinatarra ere egiten dugu. Ariketa errezak egiten

baditugu ere, bakoitzak ahal duena eta ahal duen moduan egiten du.

Gustora etortzen al dira jubilatutak gimnasia egitera?

Bai, oso gustora etortzen dira, gorputzerako onuragarria izateaz gain giza harremanak lantzeko modua ere badelako. Jubilatuentzat dohaineko ekintza dela kontutan izanda aipagarria da duten konstantzia, oso leialak dira eta ez dute piperrik egiten.

Zu gustora al zaude talde hauekin?

Oso gustora nabil beraiekin, oso giro jatorra izaten dugu eta guztiak oso esker onekoak dira. Oso talde polita da eta oso gustora nago



BAPRI

Animalidenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 • ☎ 72 20 00 - Fax: 72 24 00
20700 - ZUMARRAGA

ITURGINTZA



LUIS ANGEL

Gure erakusketan zain gauzkazu!

Deskargarako bidea, z/g. ☎ eta Faxe: 72 54 59

BA AL ZENEKIEN?



Argazkia: KUTXako fototeka

1931. urteko ekinaren 30ean gertatu zen **Ezkioko Ama Birjinaren** lehen **agerraldia**. Garai hartan Estatu guztiko jende asko inguratu zen Ezkiora Ama Birjin ikusteko asmoz.

Uztailaren 15ean, **William A. Christian** kanadiarrak, 12 urtetan, Ezkioko agerraldiari buruzko informazioa biltzen aritu denak, **Visionaries** izeneko libururen aurkezpena egingo du Donostiako liburutegian. Liburua, Estatu Batuetan, Kalifornian argitaratutakoa da, ingeles idatzita dago eta bertan Europako agerraldi desberdinen berri ematen bada ere, liburu erdia Ezkioko agerpenari buruzkoa da.

Agenda

ERAKUSKETA.

Uztailaren 10etik 20ra bitartean, **Iñaki Mariñelaren** margo erakusketa Aldaketa erakusgelan.

KONTZERTUA.

Uztailaren 6an **Goiargi** eta **Kimets** abesbatzen kontzertua izango da Zumarragako mertzedarietan iluntzeko 8etan.

LEHIAKETA. Urretxu eta Zumarragako **lore sariaketa** uztailaren 1etik 15era bitartean, epaimahakideek bi herrietako **lehio**, **balkoi** eta **baserri** inguruak begiratu eta aztertuko dituzte. Irailaren 20an, Urretxuko areto Nagusian banatuko dira sariak.

LEHIAKETAK. Literatur, pintura eta argazki **lehiaketak** antolatu dituzte Urretxu eta Zumarragako udalek. Oinarriak Zumarragako udaletxeko kultura sailan eta Urretxuko Kultur Etxean jaso daitezke. Sari banaketa irailaren 13an egingo da.


OLINPIADAK. Euskal Jaia taldeak, Gaztelekuak eta Zintzo Mintzok urretxu eta zumarragako Olinpiadak antolatu dituzte, Uztailaren 8tik 19ra bitartean. futbito, saskibaloia eta pelota partidua izango dira, Informazio gehiago antolazaleen elkarteetan.

ARTE TAILERRA.

Uztailaren 4tik 24ra, 9 urtetik 14 urte bitarteko haurrei zuzendutako **arte eta sorkuntza tailerrean ikastaroa** egingo da. Eskolak astelehenetik ostiralera izango dira, eta egunean bi ordu emango dira. Izen ematea Zumarragako udaletxean egin daiteke, ekainaren 28a baino lehen.

SANTA ANASTASIA JAIK. Santa Anastasia jaien antolaketa lanak aurrera eramateko **bilerak** egingo dira, **uztailaren 4, 9, 16 eta 23an**, arratsaldeko 7:30etan Kultur Etxean.

LIBURUENDAKA



Labeaga, 52 Tel. eta Faxe: 72 50 45
20700 URRETXU

ALBAITARITZA KLINIKA



ANA ALUSTIZA ZABALETA

Filipinas uharteak, 5 ZUMARRAGA

- Ospitalizazioa • Txertaketak
- Elikadura • Xizpiak • Zirujiia

Tel: 72 49 26

Larrialdiak: 31 04 04

6145 abonatuak

GELTOKIETAKO JAIK



Geltokietako jaiak, 1950 (Orduko izena: Fiesta de las Estaciones)

Garai batean, Zumarragan hiru tren geltoki zeuden, Renfekoa, Baskongadakoa eta Urolakoa. Hortik eta hara, bertako festei **"Fiestas de las Estaciones"** deitzen zitzairen. Argazkian agertzen den laukote hori, -gaur orkestina, txaranga edo harrelako zerbait deituko bagenioke ere - garai haietan, JAZBANA deitzen genion. Bere izena **"Los Bohemios del Goierri"** zuten. Gure herrira ere, orduko Isasondora, etorri oi ziren eta hala ezagun egin nuen **Inazio Barrio**, taldeko partaideetako bat. Argazkian, **Inazio Barrio**, **Luis Arrizabalaga**, **Ramon Esnaola** eta **Aranzadi (Tilili)** urretxuararak, **"Los Bohemios del Goierri"** taldekoak.

Jesus Lete, IBAI-ERTZek
bidalitako testu eta argazkia

Uztailaren 12tik 14ra ospatuko dira aurtengo geltokietako jaiak. Ohikoa den asto lasterketaz gain, izango da zer ikusia eta dantza egiteko aukera geltokietako jaietan. Gainera aurten kross herrikoia antolatu dute bertako bizilagunek.

Ondo pasatu beraz, geltokietako jaiak!



**Etxean dohain jaso nahi baduzu
edota
Iragarkiren bat egin nahi baduzu
Deitu 72 57 75 telefono zenbakira**

Zorionak!!!



ZORIONAK JOSEBA!! Ze beti bezala ez? Baloia eskutan eta txorri-
txoak buruan. Dena den, **AUPA FOFI!**
Eta ondo pasa zure urtebetetzéan.



Aupa Pedro,
uztailaren 6an da zure urtebetetze eguna. **ZORIONAK!**
Jonmikelen partetik.



ZORIONAK Nerea,
zure hirugarren urtebetetze egunean,
egun ona pasa dezazula opa dizuegu eta
oporretan ere ondo ibili. **ZORIONAK!!!**



ZORIONAK Itziar,
Santa Isabeletan ez ezazula diru guztia xahutu, uztailaren 7an zure gonbidapenaren zain izango gara eta. **ZORIONAK** zure lagunaren partetik.



Emostazue musutxue, **Anetxu**,
Karmele, sorgiñek,
urtebetetzien. Hartuizue porroitzue txanpañez goxuez betie
hogetabatien eta hogetabeatzixen.
kontuz atxurrarekin.





Argazkia: Gotzon Aranburu



Argazkia: Gotzon Aranburu

**SANTA ISABEL JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZUEGU GUZTIOI !!!**

Herr Aldizkaria
Otamotz

QUEWALTEBOOK
121219
121219
ELIARTEA